| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **abagune** | 'egokiera, une egokia, parada' |
| **abaila batean** | 'ahalean, ziztu bizian' |
| **abioa eman** | 'martxa, bizitasuna eman' |
| **ahur** | 'esku barrua' |
| **ahutz** | 'aho-eztarri gunea' |
| **aienarazi** | 'uxatu, alde eginarazi' |
| **aienatu** | 'uxatu, aldenarazi' |
| **aieru** | 'susmoa, inpresioa' |
| **aintza** | 'ospea, gloria' |
| **aise** | 'erraz' |
| **aitaren batean** | 'atoan, berehala, segituan' |
| **aitzakia** | 'estakurua, desenkusa' |
| **aiurri** | 'izaera, nortasuna' |
| **alaena** | 'halakoa (indargarria)' |
| **aldarte** | 'umorea, jarrera' |
| **alderotuta** | 'alde batera okerturik, oreka galduta' |
| **alderrai ibili** | 'jitoan, noraezean, nora gabe' |
| **aldiak izan** | aldikadak eduki, jarrera aldaketa handiak |
| **alegiazko** | 'litekeena, posiblea' |
| **alta** | 'hala ere, haatik' |
| **amiñi** | 'apurtxo bat, pitin bat' |
| **anartean** | 'orduan, bitartean' |
| **arbeltx** | 'ikatz mota, beltz-beltza' (azabache) |
| **arbeltz** | 'ikatz mota, beltz-beltza' (azabache) |
| **arrago** | 'metalak urtzeko ontzia' |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **arranpalo** | 'begiak zabal-zabalik, harrituta' |
| **arroila** | 'ubidea, ibaiak eginiko sakonunea' |
| **asana** | 'postura, jarrera' |
| **ataka** | 'pasabide estua, bitartea' |
| **ausazko** | 'aurrez igarri ezina, inprebisiblea' |
| **aztarren** | 'arrastoa, aztarna' |
| **aztoratu** | 'kezkatu, arduratu, larritu' |
| **bafada** | 'putza, aire kolpea' |
| **bairatu** | 'konbentzitu, *bai* esatera ekarri' |
| **banuenez** | 'horixe nuela!' |
| **barne-bulko** | 'sentimenduen bultzada, bulkada' |
| **barrekara** | 'barre egiteko pronto dagoena' |
| **begitan hartu** | 'mania hartu, txarto hartu' |
| **beharrean** | 'zorian, puntuan' |
| **behazun** | 'gibelaren isurkari mingotsa' |
| **bekoz beko** | 'aurrez aurre' |
| **belusezko** | 'ile leunekoa' |
| **bera** | 'biguna' |
| **bere baitaraturik** | 'konzentraturik' |
| **bermatu** | 'finkatu, tinkatu, segurtatu' |
| **berriketan** | 'berba eta berba, hitz eta pitz' |
| **betiereko** | 'eternoa' |
| **bezain** | 'halakoak, iduri' |
| **bidutzi** | 'munstroa, izaki itsusia' |
| **bihozgabe** | 'insensiblea, krudela' |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **bizarra eginda** | 'bizarra moztuta, afeitatuta' |
| **bizikizun** | 'bizitza pasartea' |
| **borborka** | 'pil-pilean, erio handian' |
| **burgoi** | 'adoretuta, hazkor' |
| **burtzoratu** | 'zorabiatu, burua galdu' |
| **burua jan** | 'limurtu, konbentzitu' |
| **burusi** | 'manta' |
| **dasta** | 'zaporea' |
| **diosala egin** | 'agurtu' |
| **dizdizka** | 'diz-diz egiten, distiratzen' |
| **doilor** | 'dongea, gaiztoa, bilaua' |
| **elkargainka** | 'bata bestearen atzetik, tropoiloan' |
| **eman** | 'itxura edo antza izan, iruditu' |
| **errainu** | 'distira, argi isla' |
| **errebeskada** | 'kontrara emandako kolpea' |
| **erresumin** | 'oinazezko sentsazioa, mina' |
| **erretolika** | 'azalpen luze aspegarria, "sermoia |
| **esamesa** | 'zabaltzen den gezurra edo esana' |
| **esan bazuen, esan** | 'hara, zertako esango ote zuen!' |
| **eskarmentu** | 'esperientzia' |
| **eskertze aldera** | 'eskertzeko edo, eskertzearren' |
| **esku-argia** | 'linterna' |
| **eskuarki** | 'normalean, jeneralean' |
| **etxekone** | 'bi aldeko baserrian, alboko bizilaguna' |
| **etxeorde** | 'txabola' |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **ez bat eta ez bi** | 'bat-batean, ustekabean, ezustean |
| **ez bat eta ez bi** | 'erabakitsu, kementsu' |
| **ezin konta ahala** | 'ugari, infinitua' |
| **ezpal** | 'egur zatia / jatorri berekoa' |
| **galbide** | 'hondamena, akabua' |
| **galdu ez galdu egon** | 'galtzeko zorian, arriskuan' |
| **galtzarbe** | 'besapea' |
| **gatibu** | 'atxilotua, presoa' |
| **gauza izan** | 'gai izan, kapaz izan' |
| **gerturik** | 'prest' |
| **girgilu** | 'katedun burdinazko uztagailua' |
| **gizatiar** | 'humanoa, pertsona' |
| **grina** | 'pasioa, jorana, irrika bizia' |
| **hades** | 'deabruaren erresuma' |
| **halaber** | 'era berean, baita, orobat' |
| **handik hara** | 'handik gora, haren ondoren' |
| **hanka-hutsik** | 'ortozik' |
| **harekiko egon** | 'gustatuta egon' |
| **harramazka** | 'atzaparkada, erpakada' |
| **hausnarrean** | 'gogoetatzen, pentsatzen' |
| **haztamu** | 'ukimena, zentzua' |
| **haztatu** | 'eskuaz ukitu, apur bat sakatuz' |
| **herratsu** | 'gorrotozkoa, amorruzkoa' |
| **hezueri** | 'hezurretako gaixotasuna' |
| **hil-hurren** | 'hil zorian, hiltzeko puntuan' |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **histasun** | 'tristura, goibeltasuna' |
| **histeriak joa** | 'bere onetik irtenda' |
| **hondoa jota** | 'lur jota, deprimituta' |
| **hordigarri** | 'mozkortzen duena' |
| **hozkia eman** | 'hotzikara bezalakoa sentitu' |
| **ifrentzu** | 'beste aldea (aurkia eta ifrentzua) |
| **ika-mika** | 'eztabaida' |
| **imintzio huts** | 'keinua baino ez' |
| **inoiz edo behin** | 'lantzean behin, noizik behin' |
| **inondik ere** | 'ziur, zalantza barik, duda gabe' |
| **iragaitzaz** | 'helburu izan gabe, abasberuan' |
| **iraulkatu** | 'irauli, itzulikatu' |
| **iritzi** | 'dela pentsatu' |
| **irrikatu** | 'biziki desiratu, gogo handiz' |
| **itxitura** | 'zarratua, leku itxia, gordelekua' |
| **itzulipurdika** | 'txiribueltaka' |
| **itzuri egin** | 'saihestu, ekidin' |
| **izarniatu** | 'distiratu, argitasunez bete' |
| **izu-laborri** | 'beldur ikaragarria, itzela' |
| **jaidura** | 'joera bizia, debozioa' |
| **jazarri** | 'oldartu, matxinatu' |
| **jo eta ma geratu** | 'zur eta lur, sor eta lor, harrituta' |
| **kalapita** | 'sesioa, liskarra' |
| **kanpaitsu** | 'deigarria |
| **katartiko** | 'katarsi eragilea, |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **katu** | 'armaren gailua' |
| **koitadu** | 'gizajoa, gaixoa' |
| **kordea galdu** | 'konortea galdu' |
| **korridore** | 'karrejua, pasilloa' |
| **kuxin** | 'buruko-antzekoa (cojín)' |
| **lakio** | 'zepoa, animaliak harrapatzekoa' |
| **lastaira** | 'koltxoia' |
| **lauso** | 'lainotua, nahasia, difuminatua' |
| **lazgarri** | 'beldurgarria, erdiragarria' |
| **leiar** | 'lentea, kristala' |
| **lertxun** | 'orrikara (zuhaitz mota: "alamo") |
| **likatsu** | 'lirdingatsua, nazkagarria' |
| **lizun** | 'zikina, lohia, sexurako jarrera irtena' |
| **loezinak joa** | 'imsomnioak jota' |
| **loki** | 'buruaren aldea, belarri aurrekoa' |
| **lotsagaldu** | 'irtena, lotsarik sentitzen ez duena |
| **mainatu** | 'maitasunez zaindua, mimatua' |
| **maiterre** | 'maitasunagatik urduri' |
| **makatz** | 'nahasi gabea, berezkoa' |
| **malapartatu** | 'gizajoa, baztertua' |
| **mandatu** | 'agindua' |
| **mandio** | 'lastategia, belarrak gordetzeko ganbara' |
| **marrantatsu** | 'eztul ahotsa, erlastua' |
| **marruskatu** | 'gogor igurtzi, arraskatu' |
| **melenga** | 'lar gozoa izanik, gogaikarria' |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **men egin** | 'obeditu, esana edo agindua bete' |
| **misantropo** | 'besteekin harremanik nahi ez duena' |
| **mistiko** | 'sinesmenaren menpekoa' |
| **mistizismo** | 'kutsu erlijiosoa' |
| **mizto** | 'sugeen mihia' |
| **mukuru** | 'bete-beterik, topera' |
| **nago** | 'uste dut' |
| **neure kabutan** | 'neurekiko, neure kolkorako' |
| **neurekiko** | 'neure kautan' |
| **nik ahal dakit!** | 'zer dakit, ba!' |
| **nozitu** | 'sufritu, jasan' |
| **ñirñir** | 'distira' |
| **ogi puska** | 'on-ona' |
| **ohartuki** | 'modu kontzientean' |
| **orbain** | 'zauria, ebakia izandako marka' |
| **ordu txikiak** | 'goizaldekoak, 12:00etatik gora' |
| **orobat** | 'baita, halaber, era berean' |
| **orobat** | 'era berean' |
| **oroi-min** | gogorapen sentimendu irmoa' |
| **ospa!** | 'alde!' |
| **perlesia** | 'elbarritasuna' |
| **pertxenta** | 'eder-ederra, ikusgarria, dotorea' |
| **peto** | 'jator, mazal |
| **piltzar egina** | 'sats eginda, zisko eginda' |
| **pottoka** | 'potxola, gustagarria' |

| Hitza | Esanahia |
|---|---|
| **poxi bat** | 'apurtxo bat, pitin bat' |
| **salmahai** | 'mostradorea' |
| **saminez** | 'modu mingarrian, garraztasunez' |
| **sastraka** | 'sasitza' |
| **sisi-basa** | 'hizkera edo ahoskera ulertezina' |
| **sisi-basaka** | 'zerbait modu ulertezinean ahoskatu' |
| **sorgor** | 'geldiarazia bezala' |
| **sorgortasun** | 'bertigoa, beldurrak gelditurik' |
| **suhartasun** | 'bizitasuna, kemen itsua' |
| **tarratatu** | 'zarataz urratu' |
| **tortika** | 'lohitasuna, ugerra' |
| **txatxu** | 'ziztrina, eskasa' |
| **txerpolari** | 'zirkoko artista, titiriteroa' |
| **txilin egin** | 'erakarri' |
| **txokolateki** | 'txokolatina, puska' |
| **txolarre** | 'artatxoria, kaleetako txoria' |
| **txora-txora eginda** | 'zeharo gustatuta, lelotuta' |
| **txutxumutxuzale** | 'ahapeka edozer kontatzen aritu' |
| **uhandituta** | 'uriolak, ibaia ur handiarekin' |
| **ulertzera jarri** | 'interesatu' |
| **utzi zaharra** | 'duela asko utzia, aspaldi utzia' |
| **uztartuta** | 'lotuta, bat eginda' |
| **xalotasun** | 'inozentzia, jarrera garbia' |
| **xelebre** | 'bitxia' |
| **zahagi eginda egon** | 'mozkor-mozkorrik' |

| Hitza | Esanahia |
| --- | --- |
| **zaildu** | 'gogortu, sendotu' |
| **zanga-zanga edan** | 'tragoxka handiak eginez' |
| **zangar** | 'zankarra, beheko hanka zatia' |
| **zantzu** | 'aztarna, seinalea, arrastoa' |
| **zarta** | 'eskuan kolpetxoa' |
| **zartailu** | 'zigorra, latigoa' |
| **zelai** | leuna, aldapa gabea' |
| **zer suma** | 'ikusmiran, zeozer ikusi guran' |
| **zirimola** | 'zurrunbiloa, haizea bueltaka' |
| **zirimolatsu** | 'zurrunbilo baten antzekoa' |
| **zirkinik ez** | 'mugimendu txikiena ere ez' |
| **zirtoka** | 'ateraldi edo erantzun bizia' |
| **zoroak jota egon** | 'eroturik, ganbara pitzatua eduki' |
| **zurrun** | 'gogortuta, tentsioan' |